

KONTSUMO TALDEAK

Bat egin saskiarekin!



Zentuz kontsumitu
consume con Sentido

Ekimena:



Babeslea:



{ KONTSUMO ARDURATSUAREN ALDE }

Aldatu eguneroko ohiturak

Garaiotan, ez da ohiz kanpokoia izaten egunero Txinako baratzuriek, Peruko zainuriek, Mexikoko txitxirioekin edo Brasilgo okelarekin elika gaitezen. Indarrean den merkataritza-ereduak inposatzen du munduaren alde batean biltzen diren janari “ibiltari” horiek milaka eta milaka kilometrora kontsumi daitezen, ingurumenean edo gizartean horrek duen inpaktu negatiboa aintzat hartu gabe.

Ez du axola kilometro gutxi batzuetara, askotan, kalitate handiko ekoizpen bat egoteak, gure beharrianak asetzeko adinakoa. Nazioarteko merkataritzaren arauak dira nagusi.

Praktika horren aurrean, gure osasunarentzat nahiz naturarentzat onena da gure inguruan hazten diren elikagaiak kontsumitzea, hau da, **kontsumo-zirkuitu laburrak** hautatzea eta, zehazki, kontsumo-taldeak. Horrela garraioa mu-

rrizten dugu, bai eta berotegien, hozkailuen eta bilgarrien gehiegizko erabilera era.

Hori gutxi balitz, eredu hori hautatzean baserritarrei babesa ematen diegu, eta, horrenbestez, **tokiko ekoizpenari**. Era berean, mendeetan zehar gure **emakumeak** landa-eremuan egiten ari diren lana aitortzen dugu. **Geure elikadura-buruja-betza berreskuratzeko** laguntzen dugu, bai eta multinazional handiek mendeetan duten **eredu sozial eta ekonomiko hori eraldatzeko** ere; hain zuzen ere, multinazionalok prezioak, muga-zergak eta ekoizpenak ezartzen dituzte, kontsumitzaileen eta nekazarien **eskubideak** aintzat hartu gabe.

Kontsumo-taldeak eskura daukazu alternatiba bat dira. **Ez ahaztu.**

ZER DIRA KONTSUMO-TALDEAK? ★

Talde horietan baserritar batek edo zenbaitek astero saski bat prestatzen dute ekoiztako elikagaiekin, eta 15-30 familiak saskiok jasotzen dituzte; batzuek zein besteek osatzen dute taldea. Saskiaren osaera aldatu egiten da aste batetik bestera, urteko sasoiaren arabera eta uztaren emaitzaren arabera.

Saskiaren prezioa bi alderdiek adostuta jartzen da,

eta, horrela, nekazari, abeltzain eta kontsumitzaileei protagonismoa ematen zaie, hirugarren batzuek ezarritako prezioak sustatzen duen kultura kontsumistaren aurrean.

Kontsumo-talde batean parte hartzean, handiegiak ez diren ustiategi batzuk bultzatzen ditugu; halakoetan, ekoizpena lurrari lotuta egoten da, eta dibertsifikatua izaten da, mekanizazio mugatua izaten dutela.



KONTSUMO
TALDEAK



ZER ESKAINTZEN DUTE? ★

Ez dago homogeneotasunik, baina, oro har, kontsumo-talde batekin bat egiten baduzu, honako hauek topatuko dituzu:

KALITATEKO, TOKIKO ETA SASOIKO PRODUKTUAK ★

Produktu gehienak ekologikoak dira. Jakina, transgenikoak errefusatu egiten dira. Ekoizleek iraunkortasun-irizpide batzuk betez –ingurumenaren zein gizartearen arlokoak– lan egiten dute.



PARTE-HARTZE AKTIBOA ★

Saski bat eskuratzean, ez zara bezero hutsa; aitzitik, bazkide gisa **parte hartzen** duzu, eta kudeaketako eta plangintzako eginkizunetan engaiatzen zara, batzarretara joaten zara, baserriak bisitatzen dituzu, eta abar.



JUSTIZIA SOZIALA ★

Saskien prezioak hala **ekoizpen-kostu errealak nola ekoizlearen beharrianak** hartzen ditu kontuan. Baserritarren lana balioesten da, bi alderdientzat bidezkoa den prezioa bat bermaturik.



ELIKADURA-BURUJABETZA ★

Produktu ekologikoak edo hurbileko produktuak erostean, pertsona guztion eskubidea aldarrikatzen ari zara, zer jan nahi dugun erabakitzeko, bai eta elikagaiak ekoitzi eta banatzeko nahiago dugun modua erabakitzeko eskubidea ere. **Elikadura eskubide bat da, ez merkantzia bat.**



EREDU EKITATIBOAGOAK ★

Eredu tradizional kapitalista eta patriarkalak gizon-emakumeak, lurra zein ingurumena mendeatzen atxikitzen ditu. Herrien **eskubideak** zein eskubide sozialak eta lan-eskubideak alde batera geratzen dira. Transnazionalak, NDFk (Nazioarteko Diru Funtza), MMAK (Munduko Merkataritza Antolakundea) eta BMk (Munduko Bankua) sustatzen duten eredua da.

NORK SUSTATZEN DITU? ★

Araban funtzionatzen duten talde gehienak **Asociación Alavesa de Agricultura y Ganadería Ecológica-Bionekazaritza** deritzon elkarteak bultzatutakoak dira, eta haietan ziurtagiri ekologikoa gutxieneko eskakizun bat da; izan ere, beste alderdi asko ere aintzat hartzen dira, arautegian ez jaso arren, oinarritzok izaten direnak, hala nola lursailaren tamaina, dibertsifikazioa, alderdi sozialak, eta abar.

Euskadi mailan, **Nekasarea** ere nabarmentzen da; honela definitzen du bere burua: “baserritarren eta kontsumitzaileen arteko sare bat, galtzen ari garen elikatzeko eta harremanetan egoteko modu bat berreskuratzeko interesak bultzatuta, eredu produktibista eta kontsumistak gero eta neurri handiagoan oinarritzen baita prezio apaletan eta pentsamolde pasiboan”. Eredu horretan ez dira produktu guztiak ekologikoak, baina hurbilekoak eta sasoikoak izatea aintzat.



KONTSUMO
TALDEAK



hurbiltasuna
GENERO-EKITATEA
kontsumitzaileak

JUSTIZIA ★
★ SOZIALA

dibertsifikazioa
★
sasoiko produktua SAREA

SASKI MOTAK ★

Badira saski itxiak, **baserritar bakoitzak dituen sasoiko produktuen arabera osatzen direnak; beste saski batzuk irekiak dira, eta kontsumitzaileak produktu-zerrenda batetik aukera dezake.** Badira saski bateratuak ere, baserritar baten baino gehiagoren eskaintza jasotzen dutenak.

Kasu bakoitzean saskiak bere prezioa du, baina 10-22 € artekoa izaten da. Gehienetan, hilero ordaintzen da, eta aurretiazko ordainketa izaten da.

NON ARI DIRA? ★

Gasteizen badabilta zenbait kontsumo-talde, eta zeinek bere banaketa-puntuak eta banaketa-egunak dituzte.

Horiek ezagutzeko, webgune hauetara jo ezazu:

BIONEKAZARITZA {www.bionekazaritza.net} ★
Tel.: 945 26 10 47

ZENTZUZ KONTSUMITU {www.consumoresponsable.info}

UAGA {www.uaganet.net} ★
Tel.: 945 26 05 33